

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

1. ZATIA. Gaia garatu
2. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(5 minutu)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

Guztira 10 bat
minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

A

Beloa

Anaele Etoundi Essamba
Argazkilaria



Beloaren gaia guztiz bat dator argazkilaritzan egiten dudan lanarekin. Izan ere, nire helburua beti izan da estereotipoak haustea. Nire lanak gonbidatzen duen belo bat erakusten du, eta ez atzera botatzen duen belo bat. Belo irekia da, sentsuala, ederra eta elegantea. Beloak ez du zertan gogoz kontrakoa izan. Zapi horien atzean badago Europan dugun irudi hori gainditzen duen zerbait. Beloaren eramaneraz, nortasuna berresten dute emakumeek.

Duela 50 urte emakumeek zapia eramaten zuten buruan, moda zen. Jacqueline Kennedy eramaten zuen, baita margolarien modeloek ere. Zergatik da orain onartezina? Zenbat emakumeek eramaten dute burka? Oso gutxi. Beraz, neure buruari galdetzen diot zer ote dagoen debeku horren atzean. Beloaren galaraziz, gazteak bultzatu egiten dituzte eramatera, haserrea erakusteko. Aukera libre den unetik, norberaren erabakia da. Nik ez dut inoiz eraman, eta ez dut eramango. Ez naiz horrekin hazi. Eraman nezakeen, txapela eramatea erabaki nezakeen bezala. Baina nik erretrataturiko emakumeek aukeratu egin dute eta dotoreziaz eta sentsualitatez janzten dute.

Ez dut gustuko jendea burkarekin ikustea, baina hainbat tokitan zapia debekatu dute eta horixe da larria. Zergatik ez dute txapela debekatzen? Gizakien nortasunarekin dago lotuta eta kontuz ibili beharra dago. Askatasuna dago jokoan.

Berria 2010/06/04 laburtua



36A

Gaia prestatzeko:

- Zer dio Angelek?
- Zer ideia azpimarratuko zenuke?

Eman zure iritzia:

- Zer diozu gaiaz? Zer deritzozu beloari?
- Zein dira arrazoiak? Ondorioak? Eta irtenbideak?

(beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa-deialdia: 2012ko lehen deialdia



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

3. MAILA

Ahozko azterketa

Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketa

- 1. ZATIA. Gaia garatu
- 2. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(5 minutu)

(5 minutu
azterketari
bakoitzak)

Guztira 10 bat
minutu

Prestatzeko denbora:

20 minutu inguru dituzu gaiaren garapena (egiteko hau) prestatzeko.

Gaia prestatua duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

Prestatu behar duzun gaia:

B

Familia eredia

Anjel Lertxundi
Idazlea

Psikologo ezagun bat irratian. Familia tradizionala galtzeko bidean omen, krisiak azken bultzadatxo eman omen dio betitik ezautu duan ereduari. Be-titik ahoskatu du nostalgia handiz.

Gezurretan ari zen edo ezjakina da. Atzo arte, ezkontza gehienak negoziatu egiten ziren. Unitate familiarak –ezagutu ditugu- klanak ziren familiak bainoago. Ez hain aspaldi, ama batek nekez harrapatzen zituen berrogei urte, eta bizitzaren laburrak ia ezinbestekoa bihurtzen zuen ezkontzako "hil arteko konpromisoa". Ohikoak izaten ziren intzestuak, hortxaketak. ume-abandonuak. Familia aehienetan zeoan sekretu aitorezinen bat...

Familia tradizionala deitzen duten ereduak a zer nolako tradizioa!

Kaskezur ideologikoan sartuta daukagun eredu bakarra guztiz idealizatua da. Gaur, ordea, gizarte anitzean familiak ere anitz. Ez da eredu tradizionala izango, baina bai ugaria. Eta koloretsua.



Berria 2010/06/22

36B

Gaia prestatzeko:

- Zer dio Anjel Lertxundik?
- Zer ideia azpimarratuko zenuke?

Eman zure iritzia:

- Zer diozu gaiaz? Zeintzuk dira egungo familia ereduak? Zergatik?
- Zertan aldatu da gizartea? Zergatik? Zein dira alde onak? Eta txarrak? (beste azterketariak esan duenaz ere iritzi laburra eskatuko zaizu)

EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN

Azterketa-deialdia: 2012ko lehen deialdia



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO